



ERRONKAK

- **Ulermena orokortzea:** euskara denok ulertuko bagenu, erabilera igoko litzateke hizkuntza-aukera askea izango litzatekeelako.
- **Euskal hiztunen euskara-gaitasun erlatiboa hobetzea** eta euskaraz eroso egingo duten hiztun kopurua handitzea.
- **Familia bidezko euskararen transmisioari eustea.**
- **Donostian euskararen arnagune izan daitezkeen eremuak sustatzea eta babestea:** hizkuntza bat indarberrituko bada, ezinbestekoak ditu hizkuntza hori nagusitasunez (funtzio guztiak betez) erabiliko den espazio geografiko eta funtzionalak.
- **Migrazio politikak hizkuntza politikaren erdigunera ekarri** eta etorri berriak euskarara hurbiltzeko bideak bilatzea.
- **0-16 urte bitarteko gazteentzako euskarazko aisialdi-eskaintza orokortua** izatea.
- **Euskararekiko atxikimendua indartzea.**

EZAUGARRIAK

- **Gobernantza partekatua:** euskararen biziberritze-prozesuak ikuspegi estrategiko partekatua behar du, euskararen komunitate zabal bat norabideratzen eta kohesionatzen duen ipar bat.
- **Plana gauzaterakoan zeharkakotasunean eta parte hartze koordinatuan oinarritutako gobernantza eredu bat sustatuko da,** erakunde publikoak, euskalgintza eta gizarte eragileak, elkarrekin eta elkarlanean arituz.
- **Eremu soziolinguistikoaren arabera politikak garatuko dira,** berariazko esku-hartzeak bideratuz: Ekialdeko Barrutia, Añorga Arigune, Auzoetako Euskara Batzordeak...
- **Plan bizia izango da, gizartearen aldaketak eta egoera berriak kontuan izan eta beharren arabera egokitzeko malgutasuna izango duena.** Urteko jarraipen sistema izango duen arren, hausnarketa eta egoeraren azterketa egingo da bosgarren urtean.



DONOSTIA
EUSKALDUNTZEKO
URRATSAK





@donostia_udala @DonostiaSanSebastian @ayto_SS @donostiakoudala

DONOSTIA.EUS

UDALINFO _ 010

Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa (2026-2036)

DONOSTIAKO AROA (D-AROA)



Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoak bertako eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaini nahi du datorren hamarkadarako, euskal hiztunak sortu eta euskararen komunitate sendo bat eraikitzeko gero eta eleaniztunagoa den testuinguruan.

Plan hau Eusko Jaurlaritzaren euskara indarberritzeko eta euskaldunak ahalduzko AROA marko estrategikoan oinarritua dago.

GAUR EGUN

- **Euskararen ezagutza asko zabaldu da Donostian azken hamarkadetan.** Gaur egun, % 47k euskara badaki eta % 21ek ulertzen du.
- **Kale erabileraren neurketek diote % 15,2 erabiltzen dela euskara Donostiako kaleetan.** Hala ere, beste zenbait esparrutan erabilera altuagoa da: familian, udal administrazioan, hezkuntza sisteman...
- **Donostiako Udalean langileen % 87 bere lana euskaraz egiteko gai da.**
- **Donostiako kale mailako 1.600 establezimendu e// (euskaraz barra-barra) egitasmoan parte hartzen ari dira,** hau da, zerbitzua euskaraz emateko gai dira.

ETORKIZUNERA BEGIRA

- **Globalizazioak, gizartearen ohitura aldaketek, eremu digitalaren eta adimen artifizialaren hedapenak testuinguru berriak sortuko ditu eta eragin zuzena izango dute hizkuntzen erabileran.**
- **Migrazio fluxuak ez du etenik izango.** Kultura eta hizkuntza-aniztasunak gora egiten jarraituko du Donostian.
- **Gero eta hizkuntza gehiago erabiliko dira Donostiako etxeetan.**
- **Euskaraz eroso moldatzen diren hiztun gehiago beharko ditugu horiek baitira erabileraren motor nagusia.**



1. GOBERNANTZA

G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.

- Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu.
 - Erakunde publiko eta pribatuekin lan egin herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eginbeharrez jabe daitezen.
- Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.
 - EAEko administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatu.
 - Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu.

G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.

- Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu.
 - Bilakaera demografikoak dakartzan hizkuntza-erronkei aurre egiteko, tokian tokiko estrategiak landu eta ekimenak bultzatu.
- Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.
 - Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia...) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sensibilizatuz, komunikazio-esparruak zabalduz.

G.3. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.

- Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen eskaintza eta kontsumoa areagotzeko estrategiak garatu.
 - Ingurune digitalean euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalak ziurtatu, software eta eduki libreei arreta berezia eskainiz.
 - Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen kontsumoa areagotzeko zabalkunde estrategia egokiak diseinatu eta gauzatu.
- Arlo digitaleko era guztietako enpresa eta erakundeekiko harremanak ahalbidetu eta aliantzak landu.
 - Euskararen estrategia digitala garatzea ahalbidetuko duen ordezkartza bideratu.

2. JARRERA ETA MOTIBAZIOA

JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.

- Euskaldun izatearen kontzientzia eragin.
 - Euskaldunen hizkuntza-eskubideen gaineko kontzientzia areagotu.
 - Euskal identitate askotarikoek euskararekin duten lotura aztertu eta estrategiak landu.
 - Euskara ikasteko, erabiltzeko eta transmititzeko motibazioak landu, bereziki zainduz harreman eta lagunarte berriak sortzen diren uneak.
- Gizartea aktibatuzko esperientziak indartu eta hedatu.
 - Eskaintza eta eskaera aktiboak eta jarrera proaktiboak bultzatu administrazioan, arlo sozioekonomikoan eta herritarren artean.
- Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.
 - Euskara biziberritzeko arrazoiak landu eta gizarteratu.
 - Motibazioa landu, besteak beste, kulturaren bitartez, kultur hartzailea zein sortzailea izatea bultzatuz.
 - Euskal komunitatearen ikusgarritasuna bermatzeko estrategiak diseinatu eta garatu.
 - Euskal kulturaren dimentsioa kontuan hartzen dituzten edukiak eta baliabideen sorkuntza eta kontsumoa bultzatu.

JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.

- Euskaldunen komunitatea sendotu.
 - Komunitatearekiko atxikimendua lortzeko eta komunitatearen parte izateko bideak aztertu eta estrategiak landu.
- Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri.
 - Atzerritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu.

3. EZAGUTZA ETA GAITASUNA

EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.

- Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri.
 - Familia-transmisioari lotutako proiektuen iraunkortasuna bermatu, erakundeetako hizkuntza politika sistematizatuz.
- Ezagutza orokortzeko eta espezializatze baliabideak handitu eta tresnak sortu.
 - Euskara testuinguru askotarikoetan erabiltzeko ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak bultzatu.
 - Estrategia berriak landu ahozkotasunean aurrerapenak eragiteko.
- Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.
 - Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharrendar abarberako eskaintzak sortu.

EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.

- Atzerritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.
 - Ikaskuntza prozesuak errazteko baliabideak sortu eta eskaini.

EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.

- Helduak euskalduntzeko eskaintza egokitu dauden egoera ugarietara.
 - Ikasleen helburuak kontuan hartuta, euskara ikasteko orduan komunikagarritasunean oinarria duten metodologia eta baldintza egokiak garatu.

4. ERABILERA ETA ELKARRERAGINA

EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.

- Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu.
 - Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.
 - Aisialdi antolatuen eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.
 - Euskarazko hedabideak bultzatu.
 - Bereziki 16 urtetik beherako gazteak lehenetsi euskararen erabilera sustatzeko esku-hartzeak diseinatu eta garatzerakoan.
 - Erakunde publikoek 16 urtetik beherako haur eta gazteentzat antolatzen dituzten eskola-orduz kanpoko jardueren ohiko hizkuntza euskara izan dadin neurriak hartu.

5. BERRIKUNTZA

B.1. Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.

- Gizartea aldatzen ari den neurrian, egun dauzkagun eta aurrerago etorriko diren egoerei erantzun berritzaileak emateko bidea egitea dagokigu.

6. IKERKETA ETA SISTEMATIZAZIOA

IS.1. Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.

- Proba eta esplorazio betean dabilen hizkuntza komunitateak beharrezkoa du gertatzen ari denaren gaineko kontzientzia zientifikoa izatea eta jakintza horietatik berritzen jarraitzea.

7. KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA

KH.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu.

- Komunikazio strategiaren egitekoa da euskararen eta euskal kulturaren balioa indartzea, eta euskarazko produktuen eskaintza eta kontsumoa sendotzen laguntzea.